

BAZTANGO GURASO ELKARTEEK 2020. URTEAN EGINEN DITUZTEN KULTUR JARDUERETARAKO DIRULAGUNTZAK ARAUTZEN DITUZTEN OINARRIAK

Atarikoak

Baztango Udalak, bere Kultura Zinegotzigoaren bidez, haren helburuen artean honako hau du: Baztango haurren kultura prestakuntzan lagunduko duten egitasmo eta jardueren garapena sustatzea. Horretarako Baztango Guraso Elkartei baliabide ekonomikoak bideratuko zaizkie.

Beraz, indarrean dauden udal-aurrekontuen mugen barruan, eta kontuan hartuta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak finkatzen dituen printzipioak (publizitatea, gardentasuna, konkurrentzia, objetibotasuna, berdintasuna eta bereizkeriarik eza), 2020an Baztango guraso elkarteek jarduerak egin ditzaten dirulaguntza deialdia proposatzen da.

1.–Deialdiaren xedea.

1.1. Deialdi honetarako diru-kopurua, gehienez ere, 6.078 eurokoa da, 2020. urteko aurrekontuan dagoen 1-3340-4890001 “Guraso elkarteak kultur jarduer. dirul.” kontu-sailean jaso. Aurrekontu-zuzkidura osoa agortuz gero, Baztango Udalak 1-3340 4890000 kontu-sailera zuzenduko du.

1.2. Deialdi honen xedea da Baztanen egoitza soziala duten guraso elkartei dirulaguntza ematea, guraso-elkarteen bidez hezkuntza- eta kultura-jarduerak programatzen eta antolatzen laguntzeko.

1.3. Jarduera soziokulturalak egiteko laguntza ekonomikoa ematea, betiere ondoko ezaugarri hauek badituzte:

a) Euskararen erabilera bultzatzea.

b) Formakuntzakoak izatea (ikastaroak, lantegiak, hitzaldiak...).

c) Sormenekoak (erakusketak...).

d) Artistikoak (antzezlanak, bideo emanaldiak, kontzertuak...) edo anzteko izaera duten bertze batzuk.

e) Herritar guziendako irekiak izatea.

f) Ikuspegi inklusiboa eta hezkidetzakoa duten kultura-jarduerak; horrela, ulertzen da proposatutako ekintza guztiek kontuan hartuko dituztela ikasleen aniztasuna (generoa, kultura, behar ekonomikoak, hezkuntzakoak eta bereziak) eta haien familiak, eta neurri egokiak ezarriko dituztela ikasle guztiek parte har dezaten.

1.4. Jardueren edukiak ondorengo helburuak betetzera bideratu beharko dira:

–Baztango haurren kultura prestakuntzan laguntzen duten egitasmo eta jardueren garapena sustatzea, eta hori guztia lortzeko guraso elkartei laguntza ekonomikoa ematea.

–Laguntza ekonomikoa ematea Baztanen legezko egoitza duten guraso elkartei, pertsonen kultura garapena bultzatzen duten jarduerak edo programak garatzeko, balio hauek bereziki aintzat harturik, bertzeak bertze:

genero indarkeriari zein indarkeria fisikoari arbuio-baloreak, belaunaldien arteko harremanak, gure herriko ingurunearen, kulturaren edo historiaren ezagutza.

–Eskolako ordutegitik kanpo jarduerak egiteko erraztasunak ematea, jarduerak, betiere haurren arteko harremanetarako elkarguneak ahalbidetzen dituztenak hain zuzen, laguntasuna eta elkarbizitza sustatzen dituztenak.

Baztango guraso elkarteek 2020.urteaneginen dituzten kultur jardueretarako dirulaguntzak arautzen dituzten oinarriak

–Haurren kultura prestakuntzan laguntzen duten jarduera oro, orokorki ‘eskolaz kanpokoak’ edo ‘osagarriak’ izenez ezagutzen direnak sustatzea.

-Genero-berdintasunean sentibilizatzeko kultura-jarduerak sustatzea, batez ere, hezkuntza ekitatiboa sustatzen duten hezkidetzaproiektuen bidez, familiaerantzukizunak hartzeari eta pertsonak zaintzeari dagokienez.

- Ikuspegi inklusiboa eta hezkidetzakoa duten kultura-jarduerak bultzatzea. Horrela, ulertzen da proposatutako ekintza guztiek kontuan hartuko dutela ikasleen aniztasuna (generoa, kultura, behar ekonomikoak, hezkuntzakoak eta bereziak) eta haien familiak, eta neurri egokiak ezarriko dituztela ikasle guztiek parte hartu ahal izan dezaten.

-Jarduerak Baztango udal esparruan euskararen erabilera eta sustapena arautzen dituen ordenantza bete behar du.

1.5. 2019ko azaroaren 1etik 2020ko azaroaren 1era bitarte burutzen diren jarduerak dira diruz lagunduko direnak.

–Jarduerak finantza-bideragarritasuna izan behar du. Elkarte onuraduna Baztango Udalaren dirulaguntzaren bidez estali ez den gastua estaltzeaz arduratuko da eta, horretarako, finantziario publiko edota pribatuko bertze iturri batzuek baliatuko da.

-Gastu hauek onartuko dira:

-Egoera sozioekonomiko ahulean dauden pertsonen laguntza ematen dietenak, diruz lagundutako proiektua osatzen duten jardueretara joateko zailtasunak badituzte matrikula gastuak. Onartzeko, Baztango Udaleko Oinarrizko Zerbitzuaren txostena behar du.

1.6. Deialditik kanpo geratuko dira:

–Haurrentzat ez diren jarduerak.

–Inola ere ez dira diruz lagunduko mantenu gastuak (bazkariak, afariak, ahamenak...).

–Inola ere ez da diruz lagunduko inbentarioko materiala (ordenagailuak, irriak, altzariak, funts bibliografikoak...). Soilik lagunduko dira diruz liburu erosketak, betiere liburu horiek zerikusi zuzena dutenean antolatutako jarduerekin (literatura topaketekin, ipuin kontalariekin...).

-Ezagarri sexistak, arrazistak, indarkeriazkoak, etabarrekoak dituzten jarduerak.

–Diru-sarrera berekiak eta nahikoak dituzten eta defizitrik ez duten jarduerak.

–Ageriki faltsukeriaz egindako eskaerak, edo osatu gabe daudenak.

–Aurreko urteetan gastuak justifikatu ez zituzten eskaerak edo dirulaguntza bat jasotzeak dakartzan eginbideak bete ez zituztenak.

–Udal eskaintzarekin lehiatuko diren jarduerak.

–Hezkuntza programetan aurreikusitako edo horiei lotutako irakaskuntza- jarduerak.

–Kirol-jarduerak.

–Nafarroako Gobernuak edo bertze erakunde batzuek diruz erabat lagundukoak.

–Egoitza edo lokalak egokitze lanak edo hirigintza arloko bertze edozein lan.

–Jardutze edo funtzionamendu gastuak (alokairua, telefonoa, argia, langileen nominak...).

2.–Entitate eskatzaileak.

Dirulaguntza deialdi honen kontura eska dezakete

Baztango guraso elkarteek 2020.urteaneginen dituzten kultur jardueretarako dirulaguntzak arautzen dituzten oinarriak

Baztanen helbidea duten eta udalerraren intereseko zerbitzuak ematen edo jarduerak egiten dituzten guraso elkarteek, betiere, eskaerak aurkezteko epea bukatzen denean honako baldintzak betetzen badituzte (dirulaguntza ematen den ekitaldi ekonomiko osoan iraun behar dutenak):

–Beren estatutuetan ezarritakoari jarraikiz kultura esparruan jarduerak garatzea.
–Pertsona juridikoa izatea, legalki eratua eta behar bezala izena emanda egotea Nafarroako Gobernuko Elkartearen Erregistroan. Hori frogatzeko, elkartearen estatutuen kopia aurkeztu behar da. Baztango Udalak agiri horiek jada bere eskuetan baditu, nahikoa izanen da legezko ordezkariaren aitortpena, non adieraziko baita agiri horiek ez direla aldatu. III eranskina .

–Zerga betebeharrak eta Gizarte-segurantzakoak egunean edukitzea.
Foru Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko zerga betebeharrak dagozkien egiaztagiriri bidez egiaztatuko dira. Baztango Udalarekiko zerga betebeharrei dagokienez ofizioz egiaztatuko da. Era berean, emakidaren proposamena egin aurretik, ofizioz egiaztatuko da ez duela deus ordaintzeke Udalaren Diruzaintzan.

–Aitzineko urteetan jasotako dirulaguntzen zenbatekoen egiaztatu gabeko deus ez izatea Baztango Udalarekin.

–Dirulaguntza eskatzen den egitasmorako Baztango Udalarekin lankidetzat hitzarmenik, zerbitzu kontrataziorik edo beste era bateko kontratu edo konpromisorik sinaturik ez edukitzea ez eta jarduera Guraso elkarteetako buruek edo ordezkariak egin behar dituzte eskaerak.

3.–Eskaeren aurkezpena.

3.1. emandako ereduaren arabera bete beharko dira. Jarduerak deialdiaren urte naturala akitu baino lehenago egin beharko dira 3.2. Eskabideak behar bezala beterik, Baztango Udalaren Erregistroan aurkeztu beharko dira, astelehenetik ortziralerara, 9:00etatik 14:00etara edo telematikoki, Baztango Udalaren erregistro elektronikoen bidez (<https://sedeelectronica.baztan.eus/eu/introduccion> edo edozein erregistro ofizialean. Eskaerak aurkezteko epea 2020ko azaroaren 6a (egun hori barne) izanen da.

Deialdian aurkezteak oinarri hauek onartzea dakar eta eskabideak bererako Udaleko bertze arloren batetik dirulaguntzarik jasotzea ere.

Dirulaguntzak emateko prozedura antolatzeke eta bideratzeko organo eskuduna Alkatetza edo honek ahalmen hori eskuordetzan eman dion organoa izanen da.

Balorazioa. Eskabideen ebatzen-proposamena egiteko balorazio-batzorde eskuduna honako hauek osatuko dute: Kultura zinegotziak, Kultura teknikariak eta talde politiko bakoitzak izendatutako zinegotzi batek.

Hala berean, balorazio-batzordeak haren kide ez diren teknikarien aholkularitza eskatu ahal izanen du.

3.3. Eskabideak dirulaguntzarako deialdi honetan dagoen I. eranskinaren arabera aurkeztu beharko dira eta eskaerarekin batera honako agiri hauek joanen dira:

Baztango guraso elkarteek 2020.urteaneginen dituzten kultur jardueretarako dirulaguntzak arautzen dituzten oinarriak

–Jardueren zerrenda (II. eranskina eredu hartuta), dirulaguntza eskaera aurkezteko epemuga akiturik beharrezko datuak dituen jarduera guztiek osaturik.

–Idatzizko konpromisoa Udalaren dirulaguntza jasotzeko aurkeztu diren jardueren hedapen eta publizitate euskarrietan honako hau paratzeko:
Baztango Udalaren armarria eta “Laguntzailea: Baztango Udala” esaldia.

–Foru Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko zerga betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria..

Baztango Udalarekiko betebehar fiskalei dagokienez, ofizioz egiaztatuko da.

Era berean, emakidaren proposamena egin aurretik, Udaleko Diruzaintzan zenbatekorik ordaintzeke ez duela ofizioz egiaztatuko da.

–Elkarte eskatzailearen legezko ordezkariaren adierazpen arduratsua, elkarte Nafarroako Gobernuaren Elkartearen Erregistroan izena emanda dagoela jasoko duena eta honako hau ere azalduko duena (III. Eranskina eredu harturik): Erregistro horretan aurkeztutako dokumentazioak aldaketarik ez duela izan.

3.4. Diruz lagunduko den zenbatekoa onartzen den aurrekontuaren portzentaje bat izanen da, kontuan izanda —arau orokor gisa— dirulaguntzaren gehienezko kopurua aurrekontu horren % 70ean finkatuko dela. Azkeneko kostu erreala hasieran aurreikusi denarena baino txikiagoa bada, dirulaguntza proportzionalki murriztuko da, azken kopuruetara egokituz.

Dena dela, diru-laguntzen onuradunek ezin izanen dute 2.000 € baino gehiago jaso deialdi bakoitzeko.

3.5. Behin eskaera aurkeztuz gero, aurkeztu diren agiriak oinarri hauetan eskatutakoarekin bat datozen begiratuko da. Akatsak zuzentze aldera, gehienez ere 10 eguneko epea emanen zaio eskatzaileari zuzenketa eskaria jakinarazi eta biharamunetik hasita. Hala egiten ez badu, eskaera artxibatuko da eta eskatzaileak bertan behera utzi duela ulertuko da.

4.–Banatzeko irizpideak.

4.1. Aurkeztu diren eskaerak aztertuko ditu Baztango Udalak eta dirulaguntzak emango ditu ondoko irizpideei jarraituz:

1. Aurrekontu-partida osoaren %20 onartutako eskaeren artean banatuko da, zati berdinetan.

2. Jardueren izaera hezigarria. Onartutako aurrekontuaren % 10 gehienez.

3. Jarduera tokiko kulturari lotua izatea lehenetsiko da. Onartutako aurrekontuaren % 10 gehienez.

4. Euskararen erabilera eta sustapena bultzatzea. Onartutako aurrekontuaren % 10 gehienez.

5. Herritarren parte hartzea baloratuko da. Borondatezko lana kontuan hartuko da. Onartutako aurrekontuaren % 10 gehienez.

6. Jarduera erakunde eskatzaileak berak eta haren kideek antolatua eta burutua izatea balioetsiko da. Onartutako aurrekontuaren % 30 gehienez.

7. Baztanen egoitza soziala duten erakunde batzuen arteko elkarlana baloratuko da. Onartutako aurrekontuaren % 10 gehienez.

8. Norberaren herritik kanpo egiten diren ekitaldiak, Baztango gainerako herrietan egiten direnak alegia, baloratuko dira. Onartutako aurrekontuaren % 10 gehienez.

5.–Dirulaguntzen ebazpena.

5.1. Dirulaguntzaren ebazpena Baztango Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak hartutako erabakiaren bidez egingen da. Erabakia interesdunei jakinaraziko zaie eta Udaletxeko iragarki-oholean argitaratuko da. Guraso Elkarteek 15 eguneko epea izanen dute, hala nahi balute, emandako dirulaguntzari uko egin ahal izateko.

6.–Dirulaguntzaren justifikazioa.

6.1. Ordainketaren abono-agindua eman ahal izateko, guraso elkarteak emakidaren erabakian eta deialdi honetan eskatutako baldintzak bete direla egiaztatzea ezinbestekoa da.

Horretarako, 2020ko azaroaren 6a baino lehen, Baztango Udaletxeko Erregistro Nagusian edo telematikoki, Baztango Udalaren erregistro elektronikoen bidez (<https://sedeelectronica.baztan.eus/eu/introduccion> edo edozein erregistro ofizialean ondoko agiriak aurkeztu behar dira:

–Gastuen justifikazioa (IV. eranskina eredu hartuta). Gastuak fakturen, nomen eta halakoen —jatorrizkoak edo kopia konpultsatuak— bidez justifikatu behar dira. Agiri horiek indarrean dauden legee jarraiki eginik eta diruz lagundu den jardueren hurrenkeran zerrendaturik egon beharko dute. Hartu-agiriak onartuko dira soilik bertze modu batez egiaztatu ezin diren gastuak zuzitzeko eta, edonola ere, hartu-agiria sinatzen duen pertsona ezin izanen da enpresaria edo profesionala izan. Hala balitz, faktura egitera eta ematera behartuta bailegoke. Hartu-agiriak datu hauek bildu beharko ditu: jaulkitzailearen eta jasotzailearen izen-abizenak, IFZa eta helbidea; ekintza edo zerbitzuaren deskripzio zehatza; guztizko prezioa, eta tokia, data eta jasotzailearen sinadura.

Irteera kulturalak. Udalerritik kanpoko joan-etorri gastuak onartuko dira. Era berean, kultura ekipamentuetara sartzeko txartelen (bisita gidatuen, Museoetarako sarreren...) gastuak onartuko dira.

Joan-etorriak norberaren autoan egiten badira, gastuak justifikatzeko agirietan agertu behar du nork eraman duen autoa, joan-etorria nondik norat egin den, zertarako egin den eta data. Joan-etorria garraio enpresa baten bidez eginez gero, garraio enpresako faktura aurkeztu beharko da eta, bertan, legeak eskatzen dituen datu guztiak agertuko dira, bai eta jarduera edo zerbitzuaren deskripzio zehatza ere (joan-etorria nondik norat egin den, zertarako egin den, data). Diruz lagundutako jarduera bakoitzeko IV. eranskin bat aurkeztu behar da.

–Deialdiaren 7.2 puntuan zehazten diren baldintzak bete direla egiaztatzen duen adierazpena.

–Hala balegokio, kontzeptu berarengatik jasotako diru-laguntzen egiaztagiria zeinetan argi eta garbi zehaztuko baita zeintzuk diren diru-laguntza jaso duten jarduerak. Lege-ordezkariek izenpetutako agiria aurkeztu behar da. Agiri horretan honako hau zehaztuko da: jasotako dirulaguntza, zein jardueratara bideratu den hura, aurrekontua, diru-sarrerak eta defizita.

Bertze dirulaguntza batzuk jaso dituzten jarduerak ez dute izanen Udalaren dirulaguntza jasotzeko aukerarik, jasotako dirulaguntzarekin defizita erabat estali gabe geratu direnak izan ezik.

6.2. Dirulaguntzari dagokion justifikazioa aurkeztu eta gero, deialdi honetako 6.1 puntuan jasotako baldintzekin bat ote datozen begiratuko du Udalak.

7.–Betebeharrak.

7.1. Diruz lagundutako jarduerak aldaketaren bat jasanez gero, antolatzaileek derrigorrez jakinarazi beharko diote Kultura Arloari.

7.2. Eskatzaileek dirulaguntza jasoko duten jarduerari dagozkien hedapen eta publizitate euskarrietan Baztango Udalaren armarrria eta “Laguntzailea: Baztango Udala” esaldia jarri beharko dute derrigorrez.

8.–Balizko ez-betetzeak eta ondorioak.

Bidezkoa izanen da jasotako diru kopuru osoa edo zati bat itzultzea eta diru-laguntza ordaintzen den unetik aitzina berandutza interesak eskatzea, honako kasu hauetan:

- a) Dirulaguntzaren helburua ez betetzea.
- b) Dirulaguntza eskuratzea horretarako eskatzen diren baldintzak bete gabe, onuradunari egozten ahal zaizkion arrazoiengatik.
- c) Jasotako dirua zertan erabili den erakutsi beharra ez betetzea.
- d) Bateriaezinak diren dirulaguntzak aldi berean jasotzea.
- e) Dirulaguntza emateko kontuan izan diren baldintzak aldatzea edo ez betetzea.
- f) Deialdi honetan aipatzen diren egiaztapen egintzei trabak jartzea eta horiei men egin beharra ez betetzea.
- g) Beste kasu batzuk, berariazko arau edo oinarrietan arautuak.

Dirulaguntza itzultzeko ebazpena dirulaguntza eman duen organoak emango du, aplikatu beharreko legeria orokorraren arabera espedientea bideratu ondoren.

Itzuli beharreko zenbatekoak zuzenbide publikoko diru-sarreretat hartuko dira eta horiek kobratzeko, diru-bilketarren arloan indarrean dagoen araudian xedatutakoa aplikatuko da.

9.–Onartzea eta interpretatzea.

9.1 Deialdi honetan parte hartzeak bertako baldintza guztiak onartzea dakar.

9.2 Baztango Udalari dagokio baldintzen esanahia interpretatzea, haien alderdi guztiak barne.

10.–Arau-hauste eta zehapenak.

Diru-laguntzen eta laguntza publikoen arloko arau-haustek eta zehapenak Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean xedatutakoak aginduko du.

11.–Dirulaguntzetarako araudia.

Honako Deialdi hau bertan jasota dauden baldintzekin kudeatuko da, eta, oinarri hauetan aurrez ikusi ez den orotan, aginduko du ondoko araudiak: dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2033 Lege Orokorra; Nafarroako Toki Administrazioari buruzko Foru Legea; Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Foru Legea; Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko

*Baztango guraso elkarteek 2020.urteaneginen dituzten kultur jardueretarako
dirulaguntzak arautzen dituzten oinarriak*

Foru Legea; eta, arau osagarri gisa, Aurrekontuen Lege Orokorra, eta dirulaguntzei buruzko Estatuko Araudia.

- I. ERANSKINA
- II. ERANSKINA
- III. ERANSKINA
- IV. ERANSKINA